

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen eta, azkenik, diru-sarrerak sortzen egin beharreko jarduerak dira. Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.



Horrez gain, garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea: Alde batetik, badaude kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, beti enpresa barruan egin beharrekoak. Adibidez, jatetxe bat baldin badaukazu eta arrakastaren gakoa prestatzen dituzun errezeta sekretuak baldin badira, ezin duzu beste enpresa baten esku utzi janaria prestatzeko lana, horixe baita zure negozioaren funtsezko jarduerak. Beraz, ezagutzarekin, negozioaren know how delakoarekin, lotutako guztia ezin da besteen esku utzi.

Bestetik, beste enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak, hau da, beste enpresa batzuen esku utz daitezke, enpresak berak egiteak ez diolako balio erantsirik ematen. Esate baterako, catering zerbitzua, garbiketa, publizitatea, etab. Hori gutxi balitz bezala, kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak ditugu, gure enpresaren muina osatzen dutenak. Babestu egin behar ditugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena direlako. Horren adibide garbia litzateke Coca Colaren prestakuntza edo formularen erabilera.

Gure ideari dagokionean, produkziozko jarduerak nagusi bat egingo dugu, hots, software bat sortuko dugu gailu guztietan ezartzeko eta enpresei aparatua ezartzen errazteko. Hau abantaila handia izango da, zein beste bitartekariengandik desberdintuko gaituena. Gure softwarearen zenbakiaz baliatuko dira enpresa hauek eta ondorioz, hauek egin beharreko lana azkarragoa izango da, zehatz mehatz, alkoholometroa ibilgailuan ezarri eta gure zenbakiarekin funtzionatu egingo du. Horrez gain, arazo-konponketako jarduerak apikatuko ditugu eta gure gailuarekin eta softwarearekin zerikusia duten gaizkiulertu eta arazoei soluzio bat ematen saiatuko gara bai fisikoki eta baita online moduan ere. Azkenik, sareko jarduerari erreparatuz, komunikazio sare gisa erabiliko dugu gure ideiaren berri eta honakoak eragingo dituen aldaketak helarazteko eta lehen esan bezala, baita beste enpresekin egon diren arazoei erantzun bat emateko gailu bezala erabiliko dugu.